

EUSKERAREN PIZKUNDEA

Euskera galtzen zalako negarrez zeuden biotzak alaitu ditezela. Euskera maite dezuten euskaldunak, poztu zaitezte. Euskera piztuko da. Orain arte alperrrik galdu ditugu gure indar geienak, euskalzaleak banatuta, bakartasunean eta bakoitza gure aldeti ibilli geralako. Baña batu gera, indar guztiekin bat egiteko, euskera beste itzkunzez goitik jartzeko aleginak, eta euskal erri guztia euskeraz mintzatzen ikusi arte, ez alda gure egitekoa bukatuko!

Gure lenengo zenbakiaren 102-garren orrialdean esan genduen, joan dan urteko Abenduaren 21-an bildu zirala Gipuzkoako Diputazioan euskalzale asko, gure izkera maitearen ondartzea galerazitzeko bitartetasun onenak billatzeko asmoarekin.

Aurten, Donostian bertan eta Otsaillaren 15-an, egin da bigarren billaldia irurogei euskalzale baño geiagorekin, Kanpion jauna buru zala; eta an ikusi genduen otsareak esaten zigunez dala gaurtik aurrera euskera orainalañoko moteltasunean jarraituko.

Eizagirre jaunak irakurri zituen Bizkai, Araba eta Naparroko Diputazioak Abenduko billaldiaren izenean artu zituzten diosalak eskertuaz bialdu zituzten eskutitzak; eta Gazkue jaunak Gipuzkoako Diputazioaren laguntasuna eskiñiaz, mintzatu zen.

Gañera Zumaya, Beizama, Tolosa, Hernani, Andoain, Bilbo, Kariñema, Jijon, Madrid eta beste toki askoetatik Euskaldun anitzek euskeraren pizkunda laguntzeko asmo ugari dagoala garbi aditzera ematen zuten *telegramak* bialdu zituzten. Eta gauza arrigarria askoentzat gertatu zan. Euskalerrian askok uste dute euskera ikastea alperlana dala, eta aztuta ez dala ezer galtzen, eta beren erri chikiak utzita arrotz urietara aurreramena billatzeko joan diran gazteak, euskera ez dan itzkuntza jakiteko iñor baño bear aundiagoan daudenak, batu dira euskeraren alde bana egiten dutenari oroimen bat eskeintzeko. ¡Ala balira gauzak! Urrutira joan arte echean zer daukagun ez degu jakiten.

Albistarien aldetik izan ziran *Pueblo Vasco*, *Gaceta del Norte*, *Correo de Guipúzcoa* eta *Porvenir Vasco-ren arteskarriak*. Gure *Revista internacional-ek* ere, an zuen berea.

Asko eta ondo itzezin zan Donostiako billaldian, nola lauak asi bear ziran erabakitzeko. Euskalzaleen asmoa da bilguma ortan albalin-

bada euskaldun guztiak sartzea: orregatik bilgumaren laguntzalle bakoitzari ez zaio bi peseta urtean baizik eskatuko. Baña nola geiago eman deketen eta eman nai duten euskaldun batzuek badira, oiek pagatuko dituzte berrogeita amar pesetatik aurrera urtean, bakoitzak nai duena.

Bilgumaren legeak iratziko dira, irakurgaituko dira euskeraz eta Euskalerrri guztian ugari zabalduko dira.

Eleizalde ta Albizuri jaunak eskatu zuten bezela *Euskeraren Pizkundera* izendatuko da bilguma. Izen au ezik egokia iruditzen zaigu.

Bai ta ere esan zan urrengo bilguma Zumarragako errian egitea. Angoa izango da bilguma nagusia; Zumarragara joango dira euskeragatik gogor lan egiteko indarrekin sentitzen diranak eta an, denen artean erabakiko da «*Euskeraren Pizkundera-ren*» buru zeintzuek izan bear duten.

Uste degu euskerarentzat egun doaiak badatozela. ¡Aurrera euskaldunak! *Revista internacional-ek* zuekin lan egingo du euskeraren pizkundera azaldu erazitzeagatik.

X.

